

ATZERRITARRAK EAEN 2007an Erroldak eta EAEn egoitza izateko baimenak

Panoramika honetan 2006ko abuztuaren argitaratu zen 11. panoramikaren edukia eguneratuko dugu, 2006ko urtarrilaren 1eko datuei zegokiona alegia. Horretarako, 2007ko urtarrilaren 1ean EAEn erroldatuta dauden atzerritarren aztertuko ditugu, INEK argitaratutako behin-behineko datuak erabiliz. Aztertuko ditugun gaiak ondokoak dira: atzerritarren bilakaera azken urteotan, eremu geografikoen garrantzia eta jatorri nagusiak. Azkenik, datu horiek aztertu eta 2006ko abenduaren 31n EAEn zeuden egoitza izateko baimenekin alderatuko ditugu.

1. Biztanleen udal errolda. Egoera orokorra

1. taula. EAEko atzerritarren, sexuaren eta lurraldearen arabera. 2005-2007

	2005					2007					
	Guztira		Gizonezkoak		Emakumezkoak	Guztira		Gizonezkoak		Emakumezkoak	
	K	%	K	%	K	K	%	K	%		
Espainia	3.730.610		1.992.034	53,4	1.738.576	46,6	4.482.568	2.375.783	53,0	2.106.785	47,0
EAE	72.894		37.383	51,3	35.511	48,7	98.108	49.600	50,6	48.508	49,4
Araba	15.141		8.316	54,9	6.825	45,1	19.309	10.448	54,1	8.861	45,9
Gipuzkoa	21.536		11.092	51,5	10.444	48,5	28.883	14.839	51,4	14.044	48,6
Bizkaia	36.217		17.975	49,6	18.242	50,4	49.916	24.313	48,7	25.603	51,3


Iturria: EInko datuak.

2005 eta 2007 urteen bitartean -1. taula-, Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatutako atzerritarren kopurua nabarmen hazi da. 2005ean, 72.894 atzerritar bizi zen Euskadin. 2007ko urtarrilaren 1ean, 98.108 ziren erroldatutako atzerritarren, hau da, % 34 gehiago. Era berean, 2006an zehar, EAE atzerriko biztanleriaren aldaketa handiena jasan zuten erkidegoetako bat izan zen; atzerritarren kopura % 14 hazi zen EAEn, Gaztela-Mantxan % 19 eta Aragoian % 17.

Azterritarren ekarpena erabakigarria da oraindik ere demografiari dagokionez. 1998 eta 2007 bitartean, bertako biztanleria urritu egin bada (40.422 pertsona gutxiago) ere, EAEk orain 1998an baino 42.488 biztanle gehiago ditu. Horrelakorik ez litzateke gertatu izango atzeritik 82.910 pertsona etorri izan ez balitz. Hau da, atzerritarren etorrerak bertako populazio galerari aurre egin dio.

1. grafikoa.


EAEko eta Espainiako atzerritarren bilakaera ehunekotan. 1998-2007



Iturria: EInko datuak.

2. grafikoa.

Azterritarren bilakaera ehunekotan, lurralde historikoaren arabera. 1998-2007



Iturria: EInko datuak.

2. taula. Bertako eta atzerriko biztanleriaren bilakaera EAEn. Atzerritarren ehunekoak EAEn eta Espainian. 1998-2007

	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007
EAEko biztanleak	2.098.628	2.100.441	2.098.596	2.101.478	2.108.281	2.112.204	2.115.279	2.124.846	2.133.684	2.141.116
Bertako biztanleak	2.083.430	2.083.648	2.077.456	2.074.040	2.069.873	2.062.973	2.056.113	2.051.952	2.048.142	2.043.008
Biztanle atzerritarrak	15.198	16.793	21.140	27.438	38.408	49.231	59.166	72.894	85.542	98.108
EAEko atzerritarren %	0,72	0,8	1,01	1,31	1,82	2,33	2,8	3,43	4,0	4,6
Espainiako atzerritarren %	1,6	1,86	2,28	3,33	4,73	6,24	7,02	8,46	9,2	9,9

Iturria: EInko datuak.

Atzerritarren hazkundeak gero eta garrantzi handiagoa dauka biztanleria osoan. Datuek agerian uzten dutenez -1. grafikoa eta 2. taula-, 2007an EAEn atzerritarren ehunekoak % 4,6 zen, eta Espainian % 9,9.

Lurralde historikoak banaka aztertzen baditugu, zera ikus dezakegu: Bizkaiak dauka oraindik ere atzerritar kopuru handiena 49.916 (% 50,8); ondoren Gipuzkoa dago, 28.883 atzerritar dituen (% 29,4) eta Araban 19.309 (% 19,7) atzerritar dago erroldatuta. Hala ere, ehunekoei begiratzen badiegu, Araba dago buruan % 6,3arekin. Bizkaian % 4,4 da portzentaia eta Gipuzkoak du oraindik ere ehunekorik baxuena (% 4,2). Laburbilduz, Bizkaian du egoitza EAEko atzerritarren erdiak eta Araba da etorkinen ehuneko altuena duen lurralde historikoa (2. grafikoa).

Sexuari dagokionez, EAEko atzerritarrak modu orekatuan daude banatuta: % 50,6 gizonak dira eta % 49,4 emakumeak. Emakumeen ehunekoak altuagoa da EAEn Espainian baino, non gizonezkoak % 53 baitira eta emakumezkoak % 47. Lurralde historikoei dagokienez, zenbait ezberdintasun suma daiteke: gizonezkoek gehiengo lortzen dute Araban (% 54,1) eta Gipuzkoan (% 51,4). Bizkaian, aldiz, emakumezkoen portzentaia zertxobait altuagoa da (% 51,3 emakumezkoak eta % 48,7 gizonezkoak); izan ere, lurralde horretan latinoamerikar gehiago dago.

3. taula. Atzerritarrak EAEn, jatorriaren arabera. 2007 urtea

	EAE		Araba		Gipuzkoa		Bizkaia	
	K	%	K	%	K	%	K	%
EB 27	9.472	9,7	1285	6,7	2301	8,0	5.886	11,8
EB 25	916	0,9	162	0,8	425	1,5	329	0,7
EB15	15.104	15,4	2.924	15,1	6.898	23,9	5.282	10,6
Guztira EB	25.492	26,0	4.371	22,6	9.624	33,3	11.497	23,0
Europako gain. herr.	2.820	2,9	706	3,7	1.198	4,1	916	1,8
Europa, guztira	28.312	28,9	5.077	26,3	10.822	37,5	12.413	24,9
Magreb	11.493	11,7	4.316	22,4	3.129	10,8	4.048	8,1
Afrikako gain. herr.	5.165	5,3	987	5,1	764	2,6	3.414	6,8
Afrika, guztira	16.658	17,0	5.303	27,5	3.893	13,5	7.462	14,9
AEB eta Kanada	758	0,8	73	0,4	261	0,9	424	0,8
Latinoamerika	47.375	48,3	7.791	40,3	12.472	43,2	27.112	54,3
Amerika, guztira	48.133	49,1	7.864	40,7	12.733	44,1	27.536	55,2
Txina	2.788	2,8	544	2,8	535	1,9	1.709	3,4
Asiako gain. herr.	2.111	2,2	511	2,6	860	3,0	740	1,5
Asia, guztira	4.899	5,0	1.055	5,5	1.395	4,8	2.449	4,9
Ozeania	91	0,1	1	0,0	39	0,1	51	0,1
Apatridak	15	0,0	9	0,0	1	0,0	5	0,0
Guztira	98.108	100,0	19.309	100,0	28.883	100,0	49.916	100,0

Iturria: EInko datuak.


4. taula. Atzerritarren bilakaera EAE, jatorri nagusien arabera. 2003-2007

	2003	2004	2005	2006	2007
EB 15	10.454	10.613	11.855	13.497	15.104
EB 25 (+10)		579	688	797	916
EB 27 (+ Bulgaria eta Errumania)					9.472
EB guztira	10.454	11.192	12.543	14.294	25.492
Europako gainerako herrialdeak	3.727	4.852	7.056	9.439	2.820
Europa, guztira	14.181	16.044	19.571	23.733	28.312
Magreb	5.961	7.441	8.877	10.292	11.493
Afrikako gainerako herrialdeak	3.032	2.961	4.504	4.673	5.165
Afrika, guztira	8.993	11.152	13.381	14.965	16.658
AEB eta Kanada	889	867	956	920	758
Latinoamerika	22.657	28.327	35.054	41.293	47.375
Amerika, guztira	23.546	29.104	36.010	42.213	48.133
Txina	1.340	1.558	2.120	2.530	2.788
Asiako gainerako herrialdeak	1.064	1.197	1.560	1.983	2.111
Asia, guztira	2.404	2.755	3.680	4.513	4.899
Ozeania	102	105	120	111	91
Apatridak	5	6	5	7	15
Guztira	49.231	59.166	72.767	85.542	98.108

Iturria: EInko datuak.

3. grafikoa.

Atzerritarren EAEn, jatorriaren arabera. 2003-2007



Iturria: EINKo datuak.

2. Jatorriaren araberako sailkapena

EAEn erroldatuta dauden atzerritarren jatorriari erreparatu gero, ikus dezakegu oraindik ere latinoamerikarrak direla nagusi, ia atzerritarren % 50 baitira -3. taula eta 3. grafikoa-. Latinoamerikarren ekarpen kopurua eta proportzioa handitu egin da 2003tik. Artean, iparramerikarren ehunekoak (Kanada eta AEBkoen ehunekoak) berdin dirau, % 1 inguruan.


Ondoren, europarrak dauzkagu, baina horien barne osaera eraldatu egin da: 2003an bezala, ia % 29 da europarren ehunekoa, baina pisu handiagoa dute orain Europar Batasuneko biztanleek, izan ere, 2007ko urtarrilaren 1etik Europar Batasuneko kideak dira Bulgaria, eta batez ere, Errumania. Horrela, EBaz kanpoko atzerritarren pisua gutxitu egin da, eta EAEko atzerritarren % 2,9 dira. Jakina da europarren pisua Gipuzkoan oso nabarmena dela oraindik ere (% 37,5) Araban, aldiz, afrikarrak dira atzerritarren % 27,5; funtsean,

magrebtarrak dira horiek (% 22,4) eta horien kopuruak EAEko batezbestekoa (% 11,7) ia bikoiztu egin du lurralde historiko horretan. Bizkaian, europarren eta magrebtarren pisua txikiagoa da. Latinoamerikarrak atzerritarren erdia baino gehiago dira Bizkaian, % 54,3 hain zuzen ere. Orokorrean, asiarren (% 5) eta afrikarren (% 17) proportzioak egonkor iraun du.

Ipar Amerika eta Ozeania dira biztanle kopurua murriztu duten bakarrak, gainerako jatorrietako talde guztiak hazi egin dira 2003 eta 2007 urteen bitartean. Atzerritarren batez besteko hazkundea ia % 100ekoa izan da aldi horretan. Eskualdeka aztertuta, esatekoa da batezbesteko horren azpitik hazi direla EB15ekoen eta magrebtarren portzentajeak, % 44,5 eta % 92,8 hurrenez hurren. Bestalde, latinoamerikarren (% 109) eta asiarren (% 103) ehunekoak batezbestekoa gaineratik hazi dira. Hala ere, balio absolutuak kontuan hartuz zera esan dezakegu, latinoamerikarrak 22.600 izatetik 47.375 izatera pasatu direla, afrikarrak 9.000 izatetik 16.658 izatera eta asiarrak 2.400etik 4.899ra -4. taula-.

4. grafikoa.

EAEko hamar jatorri nagusien bilakaera. 2003-2007 (Balio absolutuak)



Iturria: EINKo datuak.

5. taula. EAEn erroldatutako atzerritarren, jatorri nagusien arabera. 2003-07

	2003		2004		2005		2006		2007	
	K	%	K	%	K	%	K	%	K	%
Guztira	49.231	100	59.166	100	72.894	100	85.542	100	98.108	100
Kolonbia	8.473	17	9.044	15	10.208	14	11.086	13	11.559	12
Bolivia	-	-	-	-	3.484	5	6.016	7	9.553	10
Errumania	1.545	3	2.652	4	4.253	6	6.265	7	8.705	9
Maroko	4.481	9	5.505	9	6.754	9	7.582	9	8.540	9
Portugal	4.485	9	4.607	8	5.307	7	6.265	7	7.423	8
Ekuador	4.862	10	7.038	12	7.620	10	7.740	9	7.397	8
Brasil	2.114	4	2.269	4	3.047	4	3.790	4	4.309	4
Argentina	1.780	4	2.329	4	2.816	4	2.973	3	2.903	3
Txina	-	-	1.558	3	2.119	3	2.530	3	2.788	3
Aljeria	1.480	3	1.936	3	2.170	3	2.315	3	2.517	3
Frantzia	1.684	3	1.690	3	-	-	-	-	-	-
Erresuma Batua	1.370	3	-	-	-	-	-	-	-	-
Guztira	32.274	66	38.628	65	47.778	66	56.562	66	65.694	67
Gainerako herrialdeak	16.957	34	20.538	35	25.116	34	28.980	34	32.414	33

Iturria: EINKo datuak.

6. taula. Araban erroldatutako atzerritarrak, jatorri nagusien arabera. 2003-2007

	2003		2004		2005		2006		2007	
	K	%	K	%	K	%	K	%	K	%
Guztira	10.445	100	12.058	100	15.141	100	16.857	100,0	19.309	100
Kolonbia	1.575	15,1	1.718	14,2	2.129	14,1	2.388	14,2	2.714	14,1
Maroko	1.340	12,8	1.668	13,8	2.119	14,0	2.324	13,8	2.667	13,8
Portugal	959	9,2	929	7,7	1.138	7,5	1.469	8,7	1.816	9,4
Aljeria	975	9,3	1.209	10,0	1.286	8,5	1.282	7,6	1.397	7,2
Ekuador	797	7,6	1.097	9,1	1.222	8,1	1.194	7,1	1.168	6,0
Errumania	414	4,0	542	4,5	649	4,3	847	5,0	1.102	5,7
Brasil	712	6,8	576	4,8	789	5,2	816	4,8	859	4,4
Txina	204	2,0	260	2,2	428	2,8	499	3,0	544	2,8
Bolivia	39	0,4	92	0,8	170	1,1	312	1,9	487	2,5
Paraguai	35	0,3	94	0,8	228	1,5	331	2,0	486	2,5
Guztira	7.050	67,5	8.185	67,9	10.158	67,1	11.462	68,0	13.240	68,6
Gainerako herrialdeak	3.395	32,5	3.873	32,1	4.983	32,9	5.395	32,0	6.069	31,4

Iturria: EInko datuak.

3. Jatorri nagusiak

Hamar jatorrizko herrialde garrantzitsuenetatik 5 latinoamerikarrak dira (Kolonbia, Ekuador, Bolivia, Brasil eta Argentina), 2 Magrebekoak (Maroko eta Aljeria), 2 EBekoak (Portugal eta Errumania) eta asiar bat (Txina). 7. taulari begiratzean, aztertutako epealdian "Gainerako herrialdeak" deitzen dugun horren ehuneko gutxitu egin dela ikus dezakegu eta aldiz, jatorri garrantzitsuenek pisu erlatiboa irabazi dutela.

Oraindik ere, Kolonbia da EAeko atzerritarren jatorrizko herrialde garrantzitsua (atzerritarren % 11,8), nahiz eta 2003 urtetik % 5 inguru galdu duen. Boliviaren kasua interesgarria da, izan ere, 2003an oso portzentaje baxua izatetik (atzerritarren % 0,9) EAeko atzerritarren jatorrizko herrialdeetan bigarren garrantzitsua izatera pasatu da (% 9,7); hau

da, 429 atzerritar izatetik 9.553 izatera. Era berean, 2006 eta 2007 urteen bitartean % 60 hazi dira boliviarrak. Ildo horretatik ere, Errumaniaren kasua azpimarratu beharrekoa da, hirugarren jatorri garrantzitsua baita (% 8,9). Bestalde, Marokok, Portugalek edo Ekuadorrek EAeko jatorri garrantzitsuen artean jarraitzen dute, nahiz eta boliviarrak eta errumaniarren bultzadaren ondorioz, pisua galdu izan.

3.1. Jatorri nagusiak, lurralde historikoen arabera

Araba

Arabian Kolonbia eta Maroko dira jatorri nagusiak, 2007an biek % 14 inguru izan dute. Portugaldarren kasua ere azpimarratzekoa da, izan ere, aldi horretan % 89 hazi dira eta horrela, 2003an zuten garrantzia berreskuratu dute. Lurralde horretan atzerritarren % 9,4 dira portugaldarrak. Araban

7. taula. Bizkaiaren erroldatutako atzerritarrak, jatorri nagusien arabera. 2003-2007

	2003		2004		2005		2006		2007	
	K	%	K	%	K	%	K	%	K	%
Guztira	23.908	100	28.876	100	36.217	100	43.395	100,0	49.916	100
Bolivia	355	1,5	1.302	4,5	2.989	8,3	5.105	11,8	7.993	16,0
Kolonbia	5.499	23,0	5.787	20,0	6.322	17,5	6.710	15,5	6.640	13,3
Errumania	753	3,1	1.545	5,4	2.730	7,5	4.092	9,4	5.737	11,5
Ekuador	2.407	10,1	3.425	11,9	3.660	10,1	3.741	8,6	3.481	7,0
Maroko	1.710	7,2	2.134	7,4	2.646	7,3	2.977	6,9	3.255	6,5
Brasil	1.019	4,3	1.184	4,1	1.575	4,3	2.062	4,8	2.337	4,7
Portugal	1.366	5,7	1.376	4,8	1.621	4,5	1.873	4,3	2.135	4,3
Txina	905	3,8	1.038	3,6	1.361	3,8	1.614	3,7	1.709	3,4
Paraguai	40	0,2	114	0,4	373	1,0	734	1,7	1.376	2,8
Argentina	752	3,1	957	3,3	1.123	3,1	1.177	2,7	1.146	2,3
Guztira	14.806	61,9	18.862	65,3	24.400	67,4	30.085	69,3	35.809	71,7
Gainerako herrialdeak	9.102	38,1	10.014	34,7	11.817	32,6	13.310	30,7	14.107	28,3

Iturria: EInko datuak.

8. taula. Gipuzkoan errolatutako atzerritarrek, jatorri nagusien arabera. 2003-2007

	2003		2004		2005		2006		2007	
	K	%	K	%	K	%	K	%	K	%
Guztira	14.878	100	18.232	100	21.536	100	25.290	100	28.883	100,0
Portugal	2.160	14,5	2.302	12,6	2.548	11,8	2.923	11,6	3.472	12,0
Ekuador	1.658	11,1	2.516	13,8	2.738	12,7	2.805	11,1	2.748	9,5
Maroko	1.431	9,6	1.703	9,3	1.989	9,24	2.281	9,02	2.618	9,1
Kolonbia	1.399	9,4	1.539	8,4	1.757	8,16	1.988	7,86	2.205	7,6
Errumania	378	2,5	565	3,1	874	4,06	1.326	5,24	1.866	6,5
Argentina	764	5,1	1.041	5,7	1.275	5,92	1.369	5,41	1.329	4,6
Frantzia	933	6,3	991	5,4	1.024	4,75	1.113	4,4	1.198	4,1
Brasil	383	2,6	509	2,8	683	3,17	912	3,61	1.113	3,9
Bolivia	34	0,2	101	0,6	325	1,51	599	2,37	1.073	3,7
Italia	329	2,2	401	2,2	489	2,27	573	2,27	655	2,3
Guztira	9.469	63,6	11.668	64,0	13.702	63,6	15.889	62,8	18.277	63,3
Gainerako herrialdeak	5.409	36,4	6.564	36,0	7.834	36,4	9.401	37,2	10.606	36,7

Iturria: EInko datuak.

magrebtarrek pisu garrantzitsua dute oraindik ere. Araban bizi diren atzerritarren bostena Magrebekoa da, Marokokoa (% 13,8) zein Aljeriakoa (% 7,2). Aljeriarrek pisu erlatibo galduta dute, baina 2003an baino % 26 gehiago dira orain.

Esan bezala, Kolonbia eta Maroko dira jatorri garrantzitsuenak Araban, eta biek batera atzerritarren % 30 inguru lortzen dute; bestalde 2003tik gehien hazi dena jatorri marokoarra izan da (% 99) eta ondoren, kolonbiarra (% 72).

Bizkaia

Bizkaian zenbait aldaketa gertatu da. 2007an Bolivia Bizkaiko jatorri garrantzitsua bilakatu da (7.993 pertsona). Boliviako atzerritarrek, 2003an garrantzirik ez izatetik (355 boliviarrak), jatorri garrantzitsua izatera (7.993) pasatu dira. Kolonbia bigarren jatorri garrantzitsua bilakatu da, 1998 eta 2005 urteen artean lehena izan bazen ere. Halaber, kolonbiarren pisu erlatiboak 10 puntu egin du gora, 2003an Bizkaian bizi ziren atzerritarren % 23 izatetik 2007an % 13 izatera. Horrenbestekoa izan ez bada ere, errumaniarrek Bizkaian hazkunde nabarmena izan dute, 2003an 750 errumaniar zegoen errolatuta eta orain 5.737 dira (zazpikoitza baino gehiago). Gaur egun Bizkaian bizi diren atzerritarren % 11,5 dira Errumaniakoak. Boliviarren eta errumaniarren hazkundeak ekuadortarren eta marokoarren posizio eta pisuari eragin die, horiek hurrenez hurren Bizkaian bizi diren atzerritarren % 7 eta % 6,5 dira.

Gipuzkoa

Portugal da Gipuzkoako atzerritarren jatorrizko herrialde garrantzitsua (% 12), eta Ekuadorrek bigarren postua du (% 9,5). Halaber, EB barneko atzerritarren garrantzia adierazgarria da lurralde horretan egun ere; portugaldarrez gain, errumaniarrak (% 6,5), frantsesak (% 4,1) eta italiarrak (% 2,3) daude Gipuzkoan. Gainerako lurralde historikoetan gertatzen den ez bezala, Gipuzkoan atzerritarren jatorrizko

hamar herrialde garrantzitsuenetan lau dira Europakoak. Ondorioz, gerok eta errumaniar gehiagoren etortzea (2003an 378 ziren eta 2006an 1.866) nabarmentzekoa da. Jatorrizko hamar herrialde garrantzitsuen artean 5 latinoamerikarrak dira. Azkenik, esatekoa da marokoarrak Gipuzkoako atzerritarren % 9,1 direla.

Gipuzkoan, jatorrien araberako sailkapena ezberdina da gainerako lurraldeen aldean. Batetik, kolonbiarren taldea ez da handiena; bestetik, errumaniarren taldeak izan du hazkundarik nabarmena. Gainerako taldeak modu homogeneoan hazi dira.

Amaitzeko, aipatzekoa da lurralde historikoen artean aldeak suma daitezkeela jatorri zehatzen antolaraerari dagokionean. Latinoamerikarrak ez dira nagusi hiru lurraldeetan eta gainera, jatorrizko herrialdeen pisu erlatiboak aldatu egiten da lurralde batetik bestera. Hortaz, esan genezake Araban magrebtar gehiago dagoela, Gipuzkoan europar gehiago eta Bizkaian latinoamerikar gehiago.

4. EAEn egoitza izateko baimena (2006/12/31)

2006ko abenduaren 31n, 64.228 atzerritarrek zuten EAEn egoitza izateko baimena indarrean, aurreko urtean baino 7.000 atzerritar gehiagok. Datu horiek 2007ko urtarrilaren 1ean errolatutako pertsonen datuekin alderatuz gero, ikusi ahal izango dugu 98.108 atzerritar zegoela errolatuta eta 64.228k zutela egoitza txartela -9. taula-. Horren ondorioz, balizko erregularizazio tasa batek adieraziko luke errolatuta dauden atzerritarren %65ek egoitza izateko baimena duela. 2006ko erregularizazio tasak berdin jarraitzen du (% 67), izan ere, urtetik urtera gauzatu den hazkunde hori ulertzeko erabakigarria da 2005eko aparteko erregularizazio prozesua.

Egoitza txartela duten atzerritarren urtetik urterako hazkunde % 10ekoa izan da gutxi gorabehera bai EAEn (% 11,9)


9. taula. Erregularizazio tasa. EAE. 1998-2007

	Erroldatuak	Egoitza baimena dutenak	Erregularizazio tasa
1998	15.198	15.647	1,03
1999	16.794	16.995	1,01
2000	21.140	18.622	0,88
2001	27.438	18.822	0,69
2002	38.408	19.515	0,51
2003	49.231	24.201	0,49
2004	59.166	28.600	0,48
2005	72.767	37.150	0,51
2006	85.542	57.395	0,67
2007	98.108	64.228	0,65

Iturria: EInko datuak.

5. grafikoa.

EAEn erroldatuak eta erregularizatuak. 1998-2007



Iturria: EInko datuak.

10. taula. Egoitza izateko baimena indarrean duten atzerritarrak, probintzien arabera. 2006/12/31

	31/12/2006	31/12/2005	Gehikuntza	% Gehikuntza
Espainia	3.021.808	2.738.932	282.876	10,3
EAE	64.228	57.395	6.833	11,9
Araba	14.934	12.788	2.146	16,8
Gipuzkoa	17.107	14.916	2.191	14,7
Bizkaia	32.187	29.691	2.496	8,4

Iturria: EInko datuak.

eta bai Espainian (% 10,3) ere. Egoitza txartela duten atzerritarren ehunekoa Arabako lurralde historikoan hazi da gehien (% 16,8), eta ondoren Gipuzkoan (% 14,7). Bizkaian, egoitza izateko baimena duten atzerritarren urtetik urterako hazkundea batezbestekoa baino zertxobait baxuagoa izan da (% 8,4) -10. taula-.

11. taula. Egoitza izateko baimena indarrean duten atzerritarrak, sexuaren eta lurraldearen arabera. 2006/12/31

	Guztira		Gizonezkoak		Emakumezkoak	
	K	%	K	%	K	%
Espainia	3.021.808	100	1.636.913	54,17	1.384.895	45,83
EAE	64.228	100	33.707	52,48	30.521	47,52
Araba	14.934	100	8.318	55,7	6.616	44,3
Gipuzkoa	17.107	100	8.793	51,4	8.314	48,6
Bizkaia	32.187	100	16.596	51,56	15.591	48,44

Iturria: EInko datuak.

Egoitza izateko baimena lortzeko erregimen motari dagokionez, % 68 izan ziren erregimen orokorrekoak 2006ko abenduaren 31n. Lurralde historikoen arabera bereizten baditugu, ikusi ahal izango dugu erregimen orokorreko baimen kopuru handiena Arabak (% 75,6) duela, gero Gipuzkoak (% 65,5) eta azkenik Bizkaia (% 66,5). Azken horretan, atzerritarren bi herenak lortu du erregimen orokorreko egoitza baimena.

12. taula. Egoitza izateko baimena indarrean duten atzerritarrak, lurralde historikoaren arabera. 2006/12/31

	Guztira	Erregimen orokorra		Erregimen komunitarioa	
	K	K	%	K	%
Espainia	3.021.808	2.092.095	69,2	929.713	30,8
EAE	64.228	43.903	68,4	20.325	31,6
Araba	14.934	11.287	75,6	3.647	24,4
Gipuzkoa	17.107	11.199	65,5	5.908	34,5
Bizkaia	32.187	21.417	66,5	10.770	33,5

Iturria: EInko datuak.

Lehenik, ekarri handiena duten hogeit hamar herrialdeak aurkeztuko ditugu, bai eta horien erregularizazio tasa ere (azken horretarako, jatorri bakoitzeko erroldatutakoek lortu duten egoitza izateko baimen kopurua izango dugu kontuan). 14. taulan ikus dezakegu tradizio handieneko jatorriek erregularizazio tasa altuagoa dutela. Pisu handiena duten jatorriek eta, laburra izanda ere, nolabaiteko tradizioa duten jatorriek 0.8 inguruan dabilen edo neurri hori gainditzen duen tasa dute. Duela gutxi hazi egin diren jatorriek (Errumaniak, Boliviak eta Paraguaiak) egoitza baimena lortzeko prozesuetako trantsizioa egin gabe dute.

13. taula. Egoitza izateko baimena indarrean duten atzerritarrak EAEn, probintzia eta jatorri nagusien arabera. 2006/12/31

	EAE		Araba		Gipuzkoa		Bizkaia				
	K	%	K	%	K	%	K	%			
Kolonbia	10.548	16,4	Kolonbia	2.602	17,4	Ekuador	2.505	14,6	Kolonbia	5.969	18,5
Maroko	7.122	11,1	Maroko	2.483	16,6	Kolonbia	1.977	11,6	Ekuador	3.246	10,1
Ekuador	6.878	10,7	Portugal	1.307	8,8	Maroko	1.933	11,3	Portugal	2.728	8,5
Portugal	5.633	8,8	Ekuador	1.127	7,5	Portugal	1.598	9,3	Maroko	2.706	8,4
Gainerako herrialdeak	34.047	53,0	Gainerako herrialdeak	7.415	49,7	Gainerako herrialdeak	9.094	53,2	Gainerako herrialdeak	17.538	54,5
Guztira	64.228	100	Guztira	14.934	100	Guztira	17.107	100	Guztira	32.187	100

Iturria: EInko datuak.

Bigarrenik, EAEn egoitza izateko baimena duten pertsonen jatorri nagusie dagokienez, kolonbiarra da nagusi Araban (% 17,4) eta Bizkaian (% 18,5). Gipuzkoan, aldiz, ekuadortarra da nagusi (% 14,6) -13. taula-.

Erregimen orokorreko baimenak hainbat motatakoak izan daitezke: hasierakoak (urtebetekoak), lehen eta bigarren berritzeak (bina urtekoak), eta behin betiko baimenak. Egoitza baimen motaren arabera, zera esan genezake, EAEn

14. taula. EAEko jatorri nagusien erregularizazio tasa. 2007

	Erroldatuak	Egoitza baimena dutenak	Erregularizazio tasa
Guztira	98.108	64.228	0,65
Kolonbia	11.559	10.548	0,91
Bolivia	9.553	2.004	0,21
Errumania	8.705	3.291	0,38
Maroko	8.540	7.122	0,83
Portugal	7.423	5.633	0,76
Ekvador	7.397	6.878	0,93
Brasil	4.309	1.873	0,43
Argentina	2.903	1.750	0,60
Txina	2.788	2.575	0,92
Aljeria	2.517	1.571	0,62
Frantzia	2.144	1.000	0,47
Paraguai	1.983	408	0,21
Peru	1.854	1.840	0,99
Italia	1.598	1.231	0,77
Kuba	1.579	1.485	0,94
Venezuela	1.555	812	0,52
Erresuma Batua	1.520	915	0,60
Alemania	1.308	793	0,61
Senegal	1.306	870	0,67
Dominikar Errep.	1.176	1.120	0,95
Gainerako herr.	16.391	10.509	0,64


Iturria: EInko datuak.

erregimen orokorreko baimena dutenen artean, ia % 15ak hasierako baimena du (% 14,4), hamarretik lauk lehen berritzea egin du (% 45,4) eta % 15ak gutxi gorabehera bigarren berritzea egin du (% 14,6). Erregimen orokorreko atzeritarren laurdenak (% 24,5) behin betiko baimena dauka.

Lurralde historikoei dagokienez -15. taula-, Araban dago behin betiko baimena duten atzeritarren kopuru handiena

6. grafiko.


Atzeritarrak, egoitza izateko baimenaren arabera. Espainian, EAEn eta lurralde historikoetan. 2006



Iturria: EInko datuak.

7. grafiko.

Atzeritarrak, erregimen orokorreko egoitza baimen motaren arabera, Espainian, EAEn eta lurralde historikoetan. 2006/12/31



Iturria: EInko datuak.


(% 30,1), ondoren Bizkaia eta Gipuzkoa datoz. Hasierako baimenei dagokienez, Bizkaia dauka hasierako baimena lortu duten atzeritarren ehuneko txikiena (% 9,9); Araban (% 17) eta Gipuzkoan (% 20,2) erregimen orokorreko hamar atzeritarretik bik hasierako baimena du. Hala ere, Bizkaia da lehen berritzeen ehuneko altuena duen lurraldea (% 50,2), gero Gipuzkoa (% 45,1) eta azkenik, Araba (% 36,5).

15. taula. Erregimen orokorreko baimena indarrean duten atzeritarrak, baimen motaren arabera. EAE eta lurralde historikoak. 2006/12/31

	GUZTIRA		EGOITZA IZATEKO BAIMEN MOTA									
			Hasierakoa		Lehen berritzea		Bigarren berritzea		Behin betikoa		Beste batzuk	
	K	%	K	%	K	%	K	%	K	%	K	%
Espainia	2.092.095	100	257.541	12,3	844.857	40,4	331.941	15,9	634.531	30,3	23.225	1,1
EAE	43.903	100	6.305	14,4	19.931	45,4	6.416	14,6	10.769	24,5	482	1,1
Araba	11.287	100	1.924	17,0	4.125	36,5	1.738	15,4	3.394	30,1	106	0,9
Gipuzkoa	11.199	100	2.260	20,2	5.046	45,1	1.524	13,6	2.311	20,6	58	0,5
Bizkaia	21.417	100	2.121	9,9	10.760	50,2	3.154	14,7	5.064	23,6	318	1,5


Iturria: EInko datuak.

1. Mapa. Atzerritarriko jatorri nagusien bilakaera. EAE. 1999 eta 2007. Balio absolutuak eta ehunekoak.




Iturria: EInko datuak.

2. Mapa. Atzerriko jatorri nagusiak. EAE. 2007



Iturria: EInko datuak.



ikuspegi
Migrazioen Erakunde Nazionala
Departamentuaren Erakunde Nazionala

EAEko immigrazioaren inguruko informazio gehiagorako kontsulta ezazu gure web orria: www.ikuspegi.org

Behatokiaren beste zerbitzu batzuk ere zure esku daude:

- **Dokumentazio zentrua:** kontsulta zerbitzua eta liburutegi mailegua eskeintzen ditu.
- **Informazio estatistikoa.**

Gurekin harremanetan jartzeko:
Tlf.: 94 601 82 75
Fax: 94 402 35 40
e-mail: info@ikuspegi.org

Postaz eta pertsonalki helbide honetan aurki gaitzaitezku:
Alameda Mazarredo 39, 4.C, 48009 Bilbo - Bizkaia